

Oin dala mende bat, San Antonio egunean, istripu larria gertatu zan Lemoan

Egun haretan, Arrigorriaga eta Basauriko 42 erromesegaz Urkiolara joian autokamioi bat Zubiate zubitik, 11 metroko altueratik behera jausi zan Ibaizabal errekarara. 42 edo 45 bidaiari joiazan eta 6 hildako egon ziran. Gertaerak ohiartzun handia izan eban Bizkaiko zein estaduko orduko egunkarietan. Hildakoak itota hil zirala ziurtatu eben Lemoa eta Galdakaoko medikuak. **12. orrialdea**



Onditz Iturbe atleta eta korrikalari igorretarrari alkarrizketea

10. orrialdea

Konfinamentua atzerrian

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) emondako atzen datuen arabera, 7,7 miloe lagun inguruk harrapatu dabe COVID-19a munduan eta 430.000tik gora dira hildakoak.

Osasun autoridadeen gomendioak jarraituz, hemengo moduan, herrialde askotan, martian eta aprilean, konfinamentua ezarri eben. BEGITU, kanpoan bizi diran arratiarrakaz ipini da kontaktuan herrialde horreetan zelan bizi izan daben edo bizi daben itxialdia jakiteko. Euren testigantzakaz erreportaje bi argitaratuko dira. Lehenengoan, Erresuma Batuan, Irlandan, Alemanian, Frantzian eta Mexikon dagozan Amair Santos dimoztarrak, Arrate Elexpe Zeberiokoak, Areatzako Elene Etxebarriak, Tamara Berganzak eta Jon Ipiñazarrek eta Lemoako Iñigo Iturriozek hurrengo hurrengo, azaldu dabez konfinamentu horreetako zehaztapenak. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Autonomo eta lan barik geratutakoentzako dirulaguntzak

Alarma egoereagaitik euren jardueraren eten behar izan daben denda, taberna eta enpresa txikien kalteak arinduteko dirulaguntza zuzenak onartu ditue udalak. Bono-kanpainak be ipini dabez martxan herriko ostalaritzeara eta merkataritzeara bultzatzeko. Eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioan (ABEE) dago-

zan langilei lagunduteko be dirulaguntzak onartu ditue Areatzak eta Lemoak. Zeberion, familia kontziliatorako funtsa sortu dabe, konfinamentuan lana eta familia buztartzea gatz euki daben familientzat. Orokorrean, udal laguntza honeek, beste laguntzakaz bateragarriak dira. **5. orrialdea**

ARRATIA

Ubiden sanjuanak ospatuko ditue

Segurtasun neurriak hartuta eta egitarau apalxoagoagaz baina herriko jaietako ikur diran arbola eta suagaz ospatuko ditue sanjuanak Ubiden. Egun biko egitaraua prestatu dabe.

Beste herrietako jaiak bertan behera geratu diran arren, jai sinboliko edo kultura ekintzak prestatzeko beharrean dabiz Jai Batzordeak. **5. eta 6. orrialdeak**

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizidadea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com
www.begitu.org

ekainean ZURE AUDIFONOAK

%30 arteko deskontuarekin

Olaxte OPTIKA ZENTRUA

WIDEX

94 657 70 03 Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)

Literatura txokoa

JOEMAK ETA POLASAK

Izenburuak adierazoten dauan moduan jolas egiteko poemak topauko doguz liburuan. Poema horreek ilustrazio koloretsuz eta biziz josita dagoz.

Liburuaren azala ikusita emoten dau umeai zuzendutako liburua dala. Baina hori egia erdia da. Umetxoentzat da, gaztetxoentzat eta edozein adinekorentzat be. Liburuaren helburua da poemak irakurri bitartean ondo paseatea, gozatezea, barre egitea...

Egitureari jagokonez, 47 *joema* eta *polasek* osatuten dabe liburua: *Oligrafo bat nola sortu*, *Deskubrimendua*, *Sei igogailuan*, *Kanguroa eta arkakusoa*, *Botila itsasoan*, *Puskak*, *Zonbiak*, *Duelua*, *Orbelagatik balitz*, *Behia*, *Karakola*, *Jakintsua*, *Ura*,

Lainoa, *Oesteko eszena*, *Estralurtarra*, *Kontrako norabidean*, *Tinta*, *Eltxoa*, *Puzlegilea*, *Nekatu*, *Hondar alea*, *Bidaia*, *Zapping*, *Eta ñan*, *Perspektiba*, *Globoa*, *Garbi*, *Apoa eta igela*, *Arrantza*, *Xaboi burbuilen artista*, *Tontontonto*, *Itzelak*, *Deskuidoa*, *Kontuz...* *margotu berria*, *Kamuflatuta*, *Pospolooa*, *Paisaia euliarekin*, *Mamua*, *Tristura*, *Txoriak txoriak*, *Ardingarra*, *Momia*, *Katua piano gainean*, *Tan ra me bre*, eta *Gauza serioak*.

Poema batzuk bakarrean irakurtekoak dira, baina beste batzuk, oster, binaka edo hirunaka irakurri daitezke.

Tan ra me bre

Poema hau idatzi dut

arbolaren HOSTOE baina haizearekin batzuk erori dira LURRE

berri jaso nahi nituen baina ez daude KONFOR gustura dabilzalako dantzan aske eta LI

Inoz irakurri dodan libururik dibertigarriena dala esango neuke; sormena garatzeko aukerea emoten dau eta aldi bakotxean era diferentean irakurteko be bai. Irakurle, ea zeuri be gauza bera gertatzen jatzun! Erreparau egiezu azaleko irudiai edo zabaldu liburua gura dozun orrialdean! Zein animalia antzematen dozuz?

Maite Bernola Etxebarria



Iñigo Astiz

Joemak eta Polasak

Elkar argitaletxea, 2019

72 orrialde

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 15etik 21era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Cutierrez. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 22tik 28ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 29tik garagarilaren 5era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefona: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Gorbeia

Ez dakit oiloa edo arrautza izan zan lehenago. Ez dakit ingurumena ulertzeko beharrak eroan ninduan geologia ikastera edo ikasitakoak lagundu eustan gure ingurumena hobeto ezetuten. Kasua edozein dala be, etxeko leihotik ikusten neban hori ulertu beharra izan dot beti. Kontzeptu batzuk ulertzean sentidu nintzan "biki", sentidu nintzan hauskor. Argi ulertu neban gu joandakoan be gauza batzuk iraun egingo dabela. Iraun behar dabela. Ez garala ezinbestekoak ezta guk uste besteko garrantzitsuak be.

Fosilak gustetan jatazan. Fosilak arrokai data ipinten lagunduten dabe. Eurai esker dakigu gaur egun Itxina Kretazeoan arrezife bat zala. Sakonera gitxiko itsaso epel bat. Imajinetan dozue? Hori zan Gorbeia orduan.

Oin dala 315.000 urte inguru ostera, Lurraren historian pasau dan kataklismo garrantzitsuenetako bat gertatu zan. Meteorito bat? Bai zera! Bere buruari "sapiens" ezizena jarri eutsan gizakia agertu zan: "jakintsua".

Gizaki jakintsu harek hasieran ez eban Lurra mintzeko nahikoa poderirik. Baina gauzak aldatu ziran. Zoritxarrez, gizaki horrek gure ekosistemearen milaka urtetako oreka perfektu hori ahaztu eta eraldatzen hasi zan.

Aurrekari asko dagoan arren, etxe ondoan bizitako azken burutazinoa dakart hona. Gorbeian gertatu da.

Gorbeiaz maitemindu eta men-

di gidari modura ezagun dodaz gure bazterretan dagozan masifikazio arazoak. Danok mendira joan gura, hobeto esanda kurutzera, eta guztiontzat leku nahikorik ez. Urteakaz tarte batzuetan bidezidor paralelo batzuk sortu dira eta leku horreetan bedarra kaltetu. (5-10 urte daroe sare organiko batzukaz tarte horreek konpontzen). Sare horreek beti iruditu jataz inpaktu gitxiko urtenbide bat. Sarea degradauko da eta listo.

Beste naturgune batzuetan bezala oinezko guztiak bide bakar batetik bideratzea be ebatzi eben. Nire eretxiz ez da zertan ebatzi txarra izan.

Azken egun honeetan Aldapeko urtekeratik Igeriñako pagadira egin danak beste larritasun bat dauka niretzat. Benetan beharrezkoa izan da 1,5 metrotik gorako zabalera daukan "pista" bat egitea? Beharrezkoa ikusi dabe leku askotan 0,5 metrotik gora daukan lubaki bat egitea aldatsa sailhesteko? Helburua bedartzea zaintzea bazan... arroka pasarteetan sarraski hori egin beharra egoan? Benetan pentsetan dozue takoiakaz ibiltzeko pista eroso bat eginez masifikazio arazoa konponduko dala?

Tamalez ikusi dodaz "progresu"aren izenean egindako holango hainbat kontu. Tristura amaibakoa sortu jata bat-batean. Ama lurra, gure paisaia, ekosistema perfektu hau ulertzeko ahalegin guztiak egin eta gero gizakia bera ulertzen ez dodala konturatu naz. Bere burua "jakintsu" deitzean dauan gizakia. Ikusi eta epaitu, nik aspaldi galdu neban gizakiaganako esperantzea eta. Gu gara benetako pandemia.

GOTZON IDIRIN

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ailego



Gaur dakargun berbea gero eta gitxiago entzuten da gure inguruan. Diskusino edo matrakearen pareko ekintzeari ailego be esaten jako (allégoa, ahoskatuta). Batuan, eztabaida eta ezbaierabilten dira gehienbat. Eretxi desbardineta sortuten dan ailegoa eguneroko ikusi ahal dogu etxeetan, kaleetan, beharrea, politikan... Lehenago ostera, gure aurreko nagusien aholkuari jaramon handiagoa egiten jakonez ailego gitxiago egoten zan enparau guztietan: "Ailego eginda ez dozue ezer burutuko!"

ERETXIA

Gorringo bako arrautzea

Urrin ebilen COVID-19a, baina gurera be etorri jakun atzenean, eta gure mundu txikia gelditzea lortu dau.

Egun batetik bestera, ti-tau batean, ez tul egiten ebana deabrutu eta eskolak zarratu euskuezan.

Umeak bunkerrean sartu genduzan, inongo esplikazio barik, eta maisu-maistrok pantaila aurrean jarri ginan, artega, ur handietan nabegetako prest.

Ez genduzan umeak tajuz agurtu, besarkatu. Neure ikasle baten bildur-begiak untzetuta daukadaz memorian, oindino be. "Noz arte?", galdetu eustan, "luzarorako izango da", erantzun neuntsan. Beste batzuk, barriz, ospatzeari ekin eutsien... ez genkian zer etorkun gainera!

Holan, teleirakaskuntza-ra (gatxa da berba baragarriagorik topetea) eta bideodei-ra kondenu genduzan hareetako batzuk, (askok internet konexinorik be ez eukien), eta burdira igoterik lortu ez ebenak han gelditu ziran, gure ostean, arineketan. Gu, barriz, beti be eskua emon guran, eta eurak hartzeako prest. Zorigatxeok gu, talde berean hiru azpitalde egitea otu jakun: burdikoak, kaminokoak eta kaminotik kanpokoak.

Han hasi ginan gaurko erronkak biharko helburuak alkatzen, *yes-youcan* etenbako baten sartuta, produktzioan, ekoizpenean, kapitalaren martxak sartuta, norabide argi barik, borondaterik onenagaz ahal genduana hainbat ondoen egiten.

Ez egoan gelditzerik, hezkuntzearen fabrikeak be berregituratu eta produzitzen segidu behar eban. Umeak eskolatik kanpo etxean zein egoeratan egozan jakin barik, geuk be, geure makineria gogorra martxan jarri genduan: edukiak helburu, helburuak gaitasun, eta familiak wifi uginetan nabegau guran. Zorionak guraso eta maisu-maistrak, batzuk portau zarie!

Ahal zan moduan koordinata, mendi tontorreko lausoa begietatik kendu ezinik, aurrera, aurrera



IBON IZA
Irakaslea

egin genduan.

Bitartean, osteetan erreparatu barik, telebisinoaren bildurra iruntzi eben, aitiba-amamak bisitetako aukerea kendu eutseen, kalean olgetea galarazo jakien eta urnetik maitatzen ikastea besterik ez jakien gelditu. Umeai umezaroko zatirik garrantzitsuenak kendu geuntsezan.

Umeak emozinoak dirala ahaztu genduan eta ez ginan hareen begiak irakurteko kapaz izan. Izan be, pantaila karratutik inprobisetan dogunean ezin geinke inon bihotzik ikusi. Eta kontrakoa dinoana ez da irakaslea.

Mikrofonoak mute-an ipinteko euskatu geuntsen, eta gu, karratuari begira, azalpenak emoten ahalegindu ginan.

Hori bai, gure barrenak askatzeo "agur bideoak" egin genduzan, eustea meritua zala esan geuntsen; era batean, tokauko jakien etorkizunerako preparau genduzan: "eutsi gogor, zuek zarie eredu!"

Hilen kopurua gora eta gora joian martiko egun ilunetan umeak helduon mundu kamutsera ekarri, eta erantzunik emon barik, bertako urakaz busti genduzan.

Mezu kontrajarriak eta arau zorroztak onartzen eta aditzen ahalegindu ziran, jarkera bikainagaz.

"Amama jagoteko gagoz etxean, laztana", "zuok arrisksuak zarie, horregaitik zagozie etxean", "Aitatxo, heldua dalako, beharrea joango da... ekonomia ezin da-eta gelditu. Baina, zuok...".

"Auzokoak eta haren txakurrak urten leikie, baina zuk etxean egon behar dozu... distantzia, fasea eta

pikoa".

Gaurdaino inongo goi-kargurik ez da umeak akordau, horrek asko dino daukagun jendarteaz.

Alarma egoeran, zaugarrienak diran umeak, adinekoak, aniztasun funtzionaldunak eta baita euskerea bera be, periferiara agindu doguz; estaduak, poliziak, militarrek eta balkoietako salatariak erdigunea hartu dabe. Horixe gara.

Gainera, alde psikologikoari eta emozionalari erreparatu, ez gara bape be jagon. Umeai umezaro zati bat ostu deutsegu, pantaila aurrera kondenu doguz, eta hori ez deuskue parkatuko.

Debekuan sortutako guzurrezko mundu surrealista batean uger ibili gara, noraezan, eta danok amen: ederrak dira teknologia barriak, I KATEAK, zoragarriak dira gmail, meet eta microsoft...

Debekuan eta ezetzean oinarrituta euki doguz gure txikitxoak etxean, sarritan errazonamentu sendo barik, baina lau hormen artean, sozializatu barik eta inogaz olgau barik. Kalteak eginda dagoz.

Baina, badator, badator normalidade barria, normalidadea bere norma eta arauakaz jantzita, distantziak, gel hidroalkoholikoak eta ago-zapiak jantzita, bagoaz ume bako gelara barriro, etxetik egiten genduan gelatik egiteko asmoz.

Eskolara sartu naz eta Jeremiahen irribarrea ikusi dot atean, Hasanen begiak haizean, Asierren eskuak arbelean marrazki zoragarriak egiten; eta Laila eta Telhi bata besteagaz olgetan. Baina ez, gelan oroitzenekin baino ez dagoz, oin eskolan ez dago umerik.

Gorringo bako arrautzea da eskolea ume barik. Han gabiz, bertako zuringoa zuritu guran, memoria eta ebaluazioen ekuzino milagrozoak askatu guran, etorriko jakunaren bildur. Urri lehenengoa ate joka daukagu, eta pandemiaren atxakian umeak banaka jarrita irakasle askojakinok erdigunean jarriko gara. Eta, barriro be, umeari protagonista izateko aukerea ostuko deutsagu. Lan-kideok ondo dakigu hau ez dala bidea, holan hezkuntzea sekula ez da hezitzailea izango; baina ekonomiak gora egiten badau, ba...

LUMATUTEN



RUTH LINAZA

Onena eta txarrena

Exteratzearen egun luzeak amaituteko dagozan uneotan hausnarketa eta kezka ugari jotortaz burura. Batetik, egoera honen aurrean gertatutakoa bera. COVID-19 honek eragindako osasun krisia. Heriotzak, ospitaleratze luzeak, etxean sendatutakoak... ugariegia izan dirala argi geratu da.

Bestalde, egoera honetan lanean jarraitu behar izan daben osasun langile guztiak, ospitaleetako garbitzaileak, kamioi gidariak, supermerkaduetako langileak... gaixo eta etxean geratu garanon alde guztia emon daben horreek zelan igaro daben egoera honetan pentsatzea be ez da lasaigarria.

Langabezi, ABEE eta gainontzeko lan egoera garrantza biziten dagozanak. Bizirauteko arazo larriak daukiezanak, ekonomia egoera larrian geratuko diranak. Arduratzekoa da benetan.

Eta zelan ez, ezin ahaztu gure gizarteko zaurgarrienakaz. Ume

eta nagusiakaz. Inguruan daukaguzanok ondo dakigu horreek zer sufridu daben eta zein gogorra egin jakien... eta ez dakiguna gainera, honek eurengan izango dauan eragina zein izango dan. Zein latza dan bakardadea eta ze gogorra dan interkomunikata bizi garan egunotan, giza hurtitasun hori ez eukitea. Pantaila zein urruneko komunikazio hori ez da nahikoa eta gainera, konparaezina be badala argi geratu da. Familia, lagunak, ikasleak irakasleak... ondoan eta altzoan izatearen beharra, ezinbestekoa dala argi geratu da. Gauza batzuk, ezin dira sekula ordezkatu.

Baina arreata emon deustan gauza larri eta tristenetako bat, jentearen alderik onena eta txarrena erakutsi deuskun egoera izan dala hau. Alkartasuna, laguntasuna, borondate ona, auzolana langoak begi bistan geratu dira. Zoragarri gehienak. Baina norberekoiak garala, salatariak, aurrereti krudelenak erakusteko gaitasuna daukagunak be bai... Holango balore txarrenak be zoritarrez ageri-agerian geratu dira.

Tristeza, sano tristeza da holango egoera latz batek zelan ekarri leiken begi bistara gizakion alde ankerrena.

Ea behintzat, alde onena erakutsi deuskuenetatik ikasteko gai garan eta txarrenari onena aterateko etorkizuna jorratzen dogun!

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Zera berdexka hau dena delakoa, ez zara ZU.

Zera berdexka hau *epela* da oihanaren erdian aterpe, aguakate helduen kolorea du, eta hosto kiribilen usain apala. Horregatik ezin liteke ito bihotz-ore nahasia hartan, zure antza badu ere, benetan ez zarelako zu.

Zera berdexka hau egia da umeen guda-jolasak bezainbeste, madari berrien mamia du, eta txerrikumeen sabel-gaina. Horregatik eusten diot esku-ahur ireki honetan, zure antza izanik, izan zintezkeelako zu.

Zera berdexka hau

Zera berdexka hau ez zara zu. Izan ere Nlago da, ZUago baino. Eta hala eta guztiz ere, ez dut inola ere askatu nahi NIRE ZUa zaren zera berdexka hau.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Gure Esku plataformeak, osasun krisiari eta krisi ekonomiko eta sozialari erantzuteko, erabakitze eskubidea aldarrikatu eban "Hemen erabaki, herritarrok erabaki" lelopean bagilaren 7an egindako ekitaldietan. Areatzan eta Igorren be, batu ziran aldarriari.

Areatzan topaketea herriko plazan izan zan. Hogeit bat lagun batu ziran bertan. Bakotzak bere aldarrikapena etetik idatzita eroan eban, eta beste batzuen artean, "Justizia patriarkalik ez!", "Azken hitza gugandik urrun egon ez dadin" eta "Gazte bezala libertitu nahi dudalako, libre eta dibertitu izateko" aldarriak be irakurri ahal izan ziran. Erabakitze eskubidea arlo guztietan izatea eskatu eban; zaintza lanen arloan, hezkuntzan eta euskeran, berbarako.

Umeen eskubideak, errepublikea, zerbitzu publikoak indartzea eta "Jente zorionsua herri libre baten" be aldarrikatu ebezan Igorren.

Euskal Herriko plaza askotan batu ziran erabakitze eskubidearen alde. Baita Bilboko plaza eliptikoan be. Han, hilabeteotan bizi izandako "errealidade distopikoa" eta, autoritarismoa eta kontrola, gizartearen oinarri ez izateko, bertaratutakoak George Orwell-en 1984 nobelearen pasarteak irakurri ebezan, pandemiaren aurrean tokian tokiko erantzun burujabea aldarrikatuz.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulari 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 505 554 018

Troka
Lanabizari Agure II

ARRATIA

Bonoak eta dirulaguntza zuzenak

Alarma egoereagaitik zarratu behar izan ebezan tabernak. Beharrera bueltatu ahal izateko, udalak dirulaguntza zuzenak emongo deutseez autonomo eta enpresa txikerrai. Herri batzuetan, tabernetan gastetako bono kanpainak be abiatu ditue, beste laguntza batzuen artean.

Erredakzioa

Zuzeneko laguntzak eta bonoak gainera, langabezian edo ABEE (Alde Baterako Enplegu Erregulazinoa) egoeran dagozan arratia-rrentzat, be dirulaguntzak proposatu dauz EH Bilduk.

Areatzak dirulaguntzen hiru lerroak

Areatzak autonomo eta enpresa txikiak lagunduteko 40.000 euro onartu ebazan maiatzaren 12an, laguntzen lehenengo lerroa, indarrean dagoana. Hainbat eskaera aurkeztu dira. Bigarren eta hirugarren dirulaguntza lerroak jagokienean, bagilaren 10ean, autonomo eta enpresa txiki inbersinoak bultzatzeko 20.000 euro eta ABEE dagozan familia eta herri-arrantzako 60.000 euro onartu ziran aho batez osoko bilkuran, behar izan ezker beste 20.000 eurotan handituko dana.

Inbersinorako laguntzak alarma egoerearen ondorioz egindako inbersinoak (manparak, gel hidroalkoholikoak, termometroak...) ordaintzen lagunduteko edo publizidade euskarriak bultzatzen laguntzeko dira. Inbersino materialetan, egindako inbersinoen %45 ordainduko da, gehienez 1.500 euro. Publizidadeari jagokien barriz, inbersinoen %35era arte,

gehienez 1.000 euro. Urri lehenengoaren 30era arte aurkeztu ahal dira eskaerak.

Gainera, ABEEen edo langabezian geratu diranai ABEEtik jasoten daben diru sarrerea osotuko jakie, soldatea osatu arte edo gehienez 1.100 eurora ailegau arte. Bizikidetzatza unidate bereko persona bik eskatu ahalko dabe gehienez dirulaguntzea. Seme-alabak izateagaitik be beste osagarri bat emongo da, 150 euro seme-alaba bakotxe-ko, gehienez 300 euro.

Dirulaguntza zuzenak eta tabernetarako bonoak Zeanurin

Zeanurik 25.000 euro ipini ditu alarma egoereak kaltetutakoak lagunduteko, baina inori ez jakola atea zarratuko eta eskerea handiagoa izango balitz, diru gehiago ipiniko dabela azaldu deutso BEGITURI Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkateak.

Jarduera eten egin behar izan dabez negoziotarako; hau da, ostalaritzarako, dira laguntza zuzenak. Horreek 600 euro jasoko dabez. Udalak gastuak kubriduten be lagunduko dau diruz; hau da, lokalaren alokairua, ura, argia, gasa eta abar, 1.200 euro arte. Denda eta tabernetan osasun segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diran materialak Udalak ipini ditu, manparak, maskarak eta abar.

Bonoak ateratea be onartu da ordenantzan. Herriko jatetxe eta tabernetan erabilteko izango dira. Udaletxean erosi ahal izango dira, 15 euroko bonoak, 10 euro ordainduta.

Familia-kontziliazinarako funtsa Zeberion

Zeberio Udalak laguntza lerro berezi bat martxan ipintea erabagi dau, egungo egoeran lana eta familia buztartzea gatz daukien familiei lagunduteko. Familia-kontziliazinarako funtsa izeneko programearen bitartez, zuzeneko laguntza ekonomiko bat emongo da, gehienez 400 eurokoa, 12 urte edo gitxiagoko seme-alabak zaintzen laguntzen daben pertsonen zerbitzua kontratatatu beharrezkoak diran gastuak arintzeko.

Udalak, alarma egoerea deklaratu ostean familia antolatzen eragin berezia izan daben neurrien aurrean -esaterako, ikastetxeak zarratu izanak- sustatu dau ekimen hau. "Egoera honek desoreka eragin dau ohiko lan jardurearen eta seme-alaba adinbakoien arreta eta zaintza preminen artean" dinoe Udaletik.

Laguntza baldintzak beteten dabezan eskatzaileak emongo jakie, funtsak agortu arte.

Edozelan be, funts honek handitu ahal izango dira jagokien

aurrekontu aldaketea eginda.

Igorreko dirulaguntza zuzenak

Igorrek 200.000 euroko diru partidea bideratu dau alarma egoereak kaltetutako autonomo eta enpresa txikiak dirulaguntza zuzenak emoteko. Zarratu behar izan daben establezimentuak 500 euroko dirulaguntzea jasoko dabe, eta fakturazinoa %60 murriztu jakienak 250 euroko laguntzea.

EH Bilduren proposamena

EH Bilduk, autonomo eta enpresa txikiak 595.000 euroko laguntzak proposatu ebazan maiatzean, herri bakotzak dituan

merkatari kopurua eta ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta. Arantzazu, Areatza, Igorre eta Lemoako Udaletan onartu dira laguntzok eta oin COVID-19aren eraginagaitik behar barik gelditu edo ABEE egoeran dagozanentzat proposamen barria egin dau. Honek dira proposatutako diru partidak: Arantzazu 5.000 euro, Areatza 60.000, (hilaren 10ean onartu zan), Artea 45.000, Bedia 60.000, Dima 60.000, Igorre 150.000, Lemoa 200.000, (EH Bilduko botokaz onartuta), eta Zeanuri 60.000. Areatzako Udalak gainera autonomo eta enpresa txiki inbersinoak bultzatzeko beste 20.000 euro be onartu ditu.

UBIDE

Sanjuanak ospatuko dira sua eta arboleagaz

Erredakzioa

Ubidek sanjuanak ospatuko ditu urtero lez. Eta tradizioari eutsiz aurten be arbolearen bila joango dira basora ubidezarrak, gero plazan altxatzeko. Sua be biztuko dabe San Juan bezperako gaubean.

Urriagoa bada be, aurreko urteetako antzeko egitaraua prestatu dabe. Ez da egongo erromeria eta kontzerturik, baina elektrotxaranga eta jantza ikuskizuna agertzen dira jai egitarauan, BEGITU inprentara joan aurretik jantza ikuskizuna zehaztuta ez baegoan be.

Ekintzetan, segurtasuna bermatuta egongo da eta datorren

urtean "gehiago eta hobeto" egiteko asmoa daukiela azaldu dabe Jai Batzordekoak.

Bagilak 23, martitzena

17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbola plazan altxau eta ondoren Orkresta elektrotuna.
21:00etan, azuri txuletatxoak.
23:00etan, sua.

Bagilak 24, eguaztena

12:00etan, Altxorraren bila umeentzako jolasa.
13:00etan, herri kopaua.
21:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen jantza ikuskizuna eta ondoren azken traka.



ARRATIA

Uda eta aisialdiari begira hirugarren fasean

Erredakzioa

Alarma egoeratik urteteko hirugarren fasean izan gara hamabostaldi honetan eta kirol eta aisialdi gune batzuk hasi dira atek zabalduten; Areatzako parketxea eta Arteako frontoia, barbarako. Artean, atek zabaldutakoan, kiroldegiko kuotearen zati porportzionala itzuliko jakiera erabiltzaile jakinarazo dau Udalak.

Oindino kultur etxeak, kiroldegia eta beste udal instalazioak zarratuta egon arren, aire zabalean hainbat jardura antolatuten

hasi dira udal eta alkarte batzuk. Holan, Lemoan, Lemoako Txirindulari Elkarrekin urtekerak antolatuten dauz egunero. Astean behin, ibilaldi gidatuak antolatuten ditu Udalak edadekoentzat eta barriro hasi da entrenetan andren galapan egiteko taldea. Ubidek sanjaunak ospatuko ditu arbola eta suagaz. Zeanurin aire zabaleko pintura lehiaketea egin da.

Ha-ta guzti be, online jarduerak ez dira eten, eta umeentzako jolas eta ipuin kontaketa jarraituten dabe antolatuten udalak eta beste alkarteak.

Udalekuak

Aurreko urteetako udalekuen lan- goak izango ez diran arren, udalak umeentzako udako jarduerak prestatzen dabiz, hirugarren fasean ume eta gazteentzako ekintzak egiteko neurriak publikatu dira-eta.

Holan, Igorreko Udalak berbarako, garagarilaren 13tik 30era arteko umeentzako ekintzak antolatu ditu. Lemoan be, Jolaslekuak 2020 izenpean, bagilaren 29tik garagarilaren 24ra, 2008 eta 2015 urteen bitartean jaiotako umeak nagusi bategaz Lemoako espazio eta olgetako lekuak disfrutauko dabez. Dimak be udaleku presentzialak antolatu ditu garagarilerako.

Zeberio Udalak barriz, online antolatu dau Euskaraz Olgetan ekimena.

Ubide



Jai batzordeak eta Ubideko Udalak jai zoriontsuak opa deutesuez

Osasuna eta segurtasuna danon artean bermatu daiguzan.

Gora San Juanak!

ARRATIA

Bagilaren 20an egingo da Urkiolara errogatibea

Erredakzioa

Bagilaren 20an, zapatuan, egingo da Paduako San Antonioren Urkiolako santutegira errogatibea. Aurten ez da egongo autobus zerbitzurik eta 150 laguneko aforoa izango da santutegi barruan.

San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna; Arratiako parroikia guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz batera. Urtero, Arratiako Udalen Mankomunitateak lau autobus ipini izan ditu, baina aurten, antolatzaileak autobusen dirua koronabirusak kaltetu dituanen alde erabilteko eskatu deusie AUMeri. Horregaitik, batzuk euren kotxeetan eta beste batzuk oinez joango dira.

Oinez Dimatik, Igorretik eta Zeanuritik

Aurten be Arratiatik Urkiolara joateko oinezko ibilaldi gidatuak izango dira Dima, Igorre eta Ze-

anuritik abiatuta. Dimako plazan goizeko 07:00etan izango da urtekerea; Igorren be ordu berean aterako dira San Antonioren ermitatik eta Zeanurin San Antonio txikerraren (plaza ondoan) ermitearen aurretik abiatuko dira, 07:30ean. Beti talde txikietan, seguridade neurri guztiak zorrotz zainduz.

Zeanuri eta Urkiola lotzean dituan ibilbidea oin dala urte batzuk seinalizau zan PR-BI 1 moduan; eta errogatiba eguna bide hori erakusteko eta ezetuten emoteko aprobetxauko da.

Lemoako parroikia arduratu da antolaketeagaz eta Mikel Azpeitia abadea izango da meza buru. Goizeko 11:00etan hasiko da eleizkizuna. Egitarauari jagokonez, aurten ondo etorriko prozesinoa ez da egingo, eta Santutegi barruan 150 lagun sartuko dira gehien jota.

Meza ostean, eta talde argazkia egin eta gero, ez da eskainiko oiturazkoa zan kopaua.

Araluceko beharginak mobilizazioari ekin deutsee barrero

Erredakzioa

COVID-19ak eten ebezan mobilizazioak jarraituko dabe Araluceko beharginak. Izan be, zemen-diatik lan barik dagoz eta urtailetik ez dabe ezer kobrau. Bagilaren 12an, egin eben COVID-19aren osteko lehenengo manifestazioa Bilbon.

Igazko abenduaren 26an, BATZ taldea, konkurso kudeatzailearen oneretxiagaz, eta laguntza judizialaren bidez, Araluce enpresearen instalazioetan sartu zan eta lan kargak hustu ebazan, BATZen instalazioetara eroateko. Ordurako, 141 langileentzako enplegua

erreguletao dossier baten egoan Araluce.

Oin dala gitxi, Merkataritza Arloko Epaitegiak laguntza judiziala bialdu eban Araluceko sare informatikoak berrezartzeko. Sare honeek "BATZek moztu ebazan aldebakarrez eta legez kanpo ebatzita", dino Araluceko enpresa batzordeak. Eta gertakari hau irregulartasunez betetako prozesu bateri gehitu jakola dinoe. "Likidatzaileak abenduaren 31n behargin guztiak kalean egongo zirala adierazo eben arren, 141 beharginok Batz Araluceko langile izaten jarraitzen dogu, eta gure eskubideak defendiduten" dinoe.



IGORRE

ZEANURI

Bizikletak konponduteko gunea ipini dabe Zeanurin

Erredakzioa

Arratian, danon eskuragarri dagoan bizikletak konponduteko lehenengo gunea ipini dau Zeanuriko Udalak. Bertan, oinarriko konponketak egiteko tresnak dagoz, baita gurpilentzako puzgailua be. Onbizi enpresek fabrikau eta bananduten ditu konponketa gune honeek.

Arratian bizikletak konpontzeko zerbitzuen hutsune handia dago jente askok bizikletea euki arren. "Europar askotan ikusi daitezke konponketa gune honeek. Bizkaian Onbizik Iberdrola Torrean dauka jada bat jarrita (langileentzat) eta oingoan Zeanuriko hau, txirindulari guztien eskura" azaldu deutso BEGITURI Nuria Veiga Sistia-ga Onbizi proiektuko arduradunak.



ARRATIA

Formatu barriko jaiak



Lemoako Euskal Jaia.

Erredakzioa

Urri lehenengoan diran arren eta, printzipioz, COVID-19aren alarma egoera amaituta egongo dan arren, Arteako jaiak bertan behe-geratu dira. Udalak ezinezko jotzen dau segurtasun eta osasun neurriakaz, "jaiak era egoki eta ziur baten" egitea. Hori dala eta bertan behegeratu itxi ditue udako auzoetako jaiak, Santamañe eta Santiagokoak, eta urri lehenengoko andramarietako herriko jaiak be.

Holan, Arratiako herri eta auzoetako jai gehienak bertan behegeratu dira. Ha-ta guzti be, hainbat herritan egongo da ekitaldirik edo eta jai sinboliko edo birtualik.

Lemoan Euskal Jai birtuala

COVID-19aren pandemiak eta alarma egoerak ez eutseen itxi lemoztarrai ohiko eran Euskal Jaia ospatuten, baina herriko kuadrilla batzuk, baserriar erropea jantzi eta kalera urten ziran, jai beste modu baten ospatzeko.

Bagilaren 6an ospatu eben Euskal Jai desbardin hori. Udalak Euskal Jai birtuala proposatu eban; hau da, argazkiak atera eta udalera bialtzea sagardotegiko menua egiten edo bazkaltzen, jantzan, kirola edo beste edozein jarduera baserriar jantzita egiten. Guztira, 60 bat argazki eta bideo jaso ditue eta horreen arteko 9 publiko egin dira sare sozialetan.

Aurten ez da egon beste urteetan legez egitaraurik. Baina itxialdiaren ostean, deseskalatzearen bigarren fasean eta osasun segurtasun neurriak hartuta be, lagunakaz egotea jai handia izan da.

Igorren jai sinbolikoak

Igorren jai sinbolikoak egin ebezan bagilaren 5 eta 7an. Bertan, protagonismoa izan eben itxialdian arnas apur bat hartzeako hain garrantzitsuak izan diran balkoiak. Balkoia apaindu eben eta "balkoi politenarentzat" saria egon da. Jai birtual honeetako txupinazoa Gorbeialde Irratiak

bota eban, bagilaren 5ean, 19:00etan, eta jarraian Larrain jantzea transmitidu eban. Ondoren, trikitaldiak ibili ziran herritik. Hurrengo domekan, 18:30ean, Jokaldi erromeria taldeak animau eban herria.

Jai eredu barri baten bila Zeberion


Sanantolinak be urri lehenengoan ospatuten dira eta Zeberion aurten ez da aurreikusten jaiak betiko moduan ospatzea posible izango danik, jaien kontzeptua jente asko batzean daben jarduerak egitean oinarritzen da-eta. Ha-ta guzti be, zeozelan ospatutako moduaren bila dabil Udala. "Argi dago jarduera asko eta asko ezin izango dirala egin, baina beste modu batera bada be gure jaiak ospatuteko aukerea emongo deuskuen eta herritarren arteko topagune izaten jarraituko daben jarduera eta modu barriak topetan gabiz" azaldu deusie BEGITURI.

ZEBERIO

1.500 Asiako liztor inguru harrapatu dabez

Erredakzioa

Liztor arriskutsu hau harrapatu tranpak ipinten ditue urtero hainbat kanpainatan Zeberion. Aurteko urte hasikerako kanpaina zezeilean hasi zan eta maiatzaren 3an amaitu da. Hainbat auzotako 15 lagunek hartu dabe parte tranpak ipini eta jarraipena egiten eta 1.500 Asiako liztor inguru harrapatu dabez hiru hilabete horreetan.



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

| | |
|-----------------------|----------------------|
| Fernando 699 29 67 17 | Arkoitz 677 46 40 91 |
| Eduardo 647 72 96 24 | Goier 666 58 20 06 |

Puzetta polygonoa, 10 LEMOA • beeredariok@gmail.com

COVID-19A EUSKAL HERRITIK KANPO (I)

Itxialdi zorrotza ala itxialdi luzea

Arratian itxialdia amaituta eta alarma egoeratik urtetear gagozanean, zenbaterainoko konfinamentua eta zelan bizi izan daben kontau deuskue beste herrialdeetan dagozan arratiarrak. Erresuma Batuko konfinamentuaren barri emon deuskue Amaieur Santosek eta Arrate Elexpek; Irlandakoaren barri Elene Etxebarria Artabek; Tamara Berganza Alemanian bizi da; Jon Ipiñazar, Frantzian; eta Iñigo Iturrioz Mexikon.



Amaieur Santos.

Erredakzinoa**COVID-19ak gogor jo dau Erresuma Batua**

Londonen dago Amaieur Santos dimoztarra. Eskultura garaikidea ikasten dau eta bulego baten egiten dau lan. COVID-19a dala eta, hartutako neurriak aldatu egin dabe bere egunerokotasuna "Ofizian zarratu, etxetik lan egin, taberna guztiak zarratu, lagunak ez ezin ginan gelditu, supermerkaduak hutsik egon ziran lehenengo asteetan ze jentek bildurra eukan, metro linea asko be zarratu egin ziran, eta medikuarenera joatea ez zan bape be erraza" azaldu dau Dimakoak.

Arrate Elexpe Zeberiokoa Chelmsford-en bizi da, oin dala 10 urtetik. The Deltic Group diskotekan *General Manager*-a da lanbidez. Urteetan zehar hainbeste herritatik mobidu da klubetan lan egiten, diskoteketan gerente moduan eta diskotekak zabalitzen. Londonetik ordu erdira dago



Arrate Elexpe.

Chelmsford eta 170.000 biztanle ditu.

Zeberiokoaren lana bete-betean jo dau itxialdiak. "Nire ardua larriena COVID-19agaz langileak izan ziran. Egun batetik bestera zarratu genduan, eta ez nekien zelan konpondu orduko kobretan daben langileen egorea. Gure konpainiak 65 lokal daukaz, eta 2.500 langile inguru. %98 ABEE moduko planetan sartu dira eta %80 kobretan dabiz". Ha-ta guzti be, pandemia gelditu behar dala eta diskotekak zabalduetea arriskutsua litzatekela dino, egunero 2.000 personak positibo emoten jarraituten dabenean. Tabernak zabalteko planak dagozala baina momentuz diskotekak ez dirala talde horretan sartzean, edukiera askoz handiagoa daukie eta. Gainera jentea parrandan doanean ez dau pentsetan distantzian, ezta eskuak garbitzean be eta kalean sortzean diran ilarak kontrolatuko gatak dira. Eta gaubeako arazoak, -jauskerak, burrukak, istripuak...- be kontuan hartu behar dirala dino. "Pentsetan dot edukierak murriztuko dituela, eta horrek kaltetuko dau negozioa. Gure diskoteketatik astean zehar 2.500 persona inguru pasetan dira" dino Elexpek.

Itxialdian Erresuna Batuan, "beste herrialdeetan legez, Ingalaterran supermerkaduak eta farmaziak izan dira zabalik egon diran denda bakarrak. Lanera joateko baimena eukien bakarrak erizainak eta medikuak izan ziran hasikera baten, eta ofizinetan behar egiten ebenak etxetik egin dabe lan" dino Zeberiokoa. Horixe izan da, Santosen kasua, bulego baten egiten dau behar eta etxetik egin behar izan dau lan konfinamentuan. Oin ABEE baten dago %80 kobretan.

Konfinamentu guztian zehar, etxeko beste bategaz batera, kirola egiteko kalera urteteko aukera izan dabela dino arratiarrak. Maiatzaren 10etik aurrera kalean egoteko gura beste denpora eta bagilaren hasikeratik aurrera, "bost laguneko arteko bilerak baimendu dabez, baina ez etxe barruan, kalean, jardinetan eta parkeetan bakarrik eta distantzia mantenduz".

Bagilaren 1ean hasi ziran esko-

lak zabalduen ume guztientzat.

Baina bitxiena, dimoztarraren eretxian, da "gubernuak oin ipini dauala berrogeialdia kanpotik datorren jentearentzat! Hamalau egun egon behar dira etxean kanpotik datozenak" inoan Santosek bagilaren 4an. Hiru aste barru barriro begiratuko dabe lege hau".

Irlandan, kasu gitxi baina deskonfinamentu luzea

Areatzako Elene Etxebarria Artabe Irlandan bizi da, Tipperary-ko konderrian, Templederry herritxoan. Tipperary landa eremuko konderrria da, Arratiaren antzekoa, herri txikiz osotutako eskualdea, herri handiago bat zentro moduan daukana. Templederryk 500 biztanle inguru ditu.

Irlandan, bagilaren 2an, 25.000 kasu eta 1.650 hildako egozan. Kasuen %48 Dublinen, %6 Cork konderrian eta beste %6 Kildare konderrian. Beste konderrietan sano kasu gitxi egon dirala dino Etxebarriak. Tipperary-n, 530 baino ez, "eta atzenengo aste bietan ez da kasu barririk ez hildakorik egon".

Areatzakoaren arabera, Irlandako konfinamentua ez da Espainian besteko gogorra izan, baina "egia da konfinamentuaren hasikeratik hona ez dirala neurriak bape be aldatu eta hasikerako antzeko egoeran gagozala" azaldu eutsan BEGITURI bagilaren 2an.

Neurrien aldetik, hasikeratik urten ahal izan dira kalera 2 km-ko radioan, etxekoak. Hori maiztaren 18an aldatu zan, lehenengo fasera pasau ziranetik aire zabalean beste persona batzuk egon ahal izan dira, eta 5 km-ko radioan mobidu, baina etxe barruetan bildu barik. Fase horretan denda batzuk zabaldu ziran baina erroa eta zapata dendak eta taberna eta jatetxeak itxita jarraituten dabe. Baita gimnasioak, liburategiak, museoak, uleapaindegia eta holango zerbitzu guztiak be.

Bagilaren 8an bigarren fasera pasau ziran, faseak 3 astekoak diralako Irlandan. "Ez gara fase desbardineta konderrira pasatzen, Irlanda osoa hartzean da kontuan, eta honek ez dauka zentzu handirik, konderririk askotara ia kasurik ez dagoalako". Guztira



Paudie Ryan eta Elene Etxebarria Artabe.

5 fase dagoz eta atzena abuztuaren 10ean hastea espero da, eta zerbitzu gehienak ez dira ordura arte zabalitzen hasiko. "Espero dot hemendik eta abuztura arte gubernuak honeri buelta batzuk emotea eta herrialdea esan baino lehenago normaltasunera buelte" dino Etxebarriak.

Izan be, kasu gitxi izanda, konfinamentuaren eraginak kezkatzen dau arratiarra. "Iruditzen jata hemen oso astiro doala prozesua, azkenaldian oso kasu barri gitxi dagoz herrialde osoan eta jentea ez dago arduratuta. Atzo (bagilak 1) adibidez 77 kasu barri eta hildako bat egon ziran Irlanda osoan. Jentea aspertzen hasi da, oso jente gitxi dabil maskarakaz eta etxe barruetan eta lorategietan biltzean dabil jaiak edo barbakok egiteko. Uleapaintzaileak etxez etxeko zerbitzuak emoten hasi dira modu "klandestinoan". Uste dot gubernuak prozesua azkartu beharko leukela behintzat kasurik ez dagoan konderrietan, eta komertzio eta zerbitzu gehienak zabaldu. Ezpabere, egoera ekonomikoak txarrera egingo dau laster eta gatxa izango da gero hortik urtetea. Honetaz aparte, osasun mentalak osasun fisikoaren besteko garrantzia daukala uste dot, eta ez dabiz horrerik kasu handirik egiten. Hemen jente asko bizi da bakarrik eta isolatuta, eta jente horrek ez dauka gauza handirik egiteko aukerarik".

Norberaren erantzukizuna Alemanian

Arantzazun jaio eta Areatzan bizi izandako Tamara Berganza Nieto

Dresden bizi da. Automozinoan egiten dau behar eta Alemanian bizi da 2018tik bere bikotekidea eta 3 seme-alabakaz.

Alemanian ekialdean dago Dresde; Saxoniako uriburua da eta 550.000 biztanle baino gehiago ditu. Kultura aldetik oso aberatsa eta izen handiko uria da, bertan dagozan antzerki, orkestra, museo eta arkitektureari esker. Uria eta natura arteko oreka izugarria lortu dau eta kale guztietan zugatz handiak dagoz eta etxe gehienak lorategiak daukiez. Dresden, martitik bagilaren 3ra arte, 10 lagun hil ziran COVID-19ak jota eta kutsatuak be Bilboren aldean, gitxi izan dirala dino.

COVID-19ak ez dauala eragin handirik izan bere bizimoduan dino Berganzak, baina bai mugak zarratuteak bere bikotekidearen lanean. "Berak Txekiar Errepublikan, Polonian eta Eslovakian egiten eban behar eta martiaren 16an mugak zarratutearen ondorioz, etxetik lan egiten hasi behar



Tamara Berganza Nieto.



Jon Ipiñazar.

izan eban" azaldu deutso BEGITURI. Umeak be, maiatzaren 18ra arte etxean gelditu behar izan ziran eskola eta haurreskolara joan barik. "Martian 16an eskola eta haurreskolakaz batera antzerki, museo, denda, jatetxe, kaleko jolastoki eta abar ixteko ebatzia hartu ebenean, ez ebezan beste konfinamentu neurri handirik ezarri. Hau da, kalera behar edo gura genduan guztia urten ahal ginan bizikideakaz. Orokorrean oso jente gitxi ikusten zan kaltetik eta nik uste dot erantzukizun individual handia egon dala hasikeratik" dino Areatzakokoak.

Espazio itxietan maskarearen erabilera derrigorrezkoa da eta erropa denda eta negozio gehienak, edukiera eta higie-neurriakaz, 3 edo 4 aste lehenago zabaldu ebezala azaldu eban Berganzak bagilaren 3an. "Eskola eta ludoteketan, klase bakotzak bere sartzeko leku eta ordutegia dauka eta ez dira beste klaseetako umeakaz alkartzen. Klase bakotzak bere tutoreagaz emoten ditu klaseak eta matematika, hizkuntza eta gizartea emoten dabe bakarrik. Haurreskolan be, neurri antzekoak ditue. Ikasgelan bertan bazkaltzen dabe". Haurreskola eta eskolak orokorrean oso espazio eta jolastoki handiak

ditue eta horrek antolatuten lagunduten dauala uste dau Berganzak.

Ez bakarrik eskoletan, urian be espazio zabalak konfinamentua arintzen lagundu dabe bere erretxian. "Hemen espazio zabal asko dagoz, parke handiak, erreka oso zabalak eta alde bietatik ibilteko aukerea. Honek guztiak, asko erraztu egin dau egoera eta ez dogu euki konfinamentuan egon garan sensazio handirik" dino.

Faserik ez da egon baina astero arau edo eskaera barriak egon dira. Ugerleku eta udalekuak zabaldu dabez. Normalidade barrira hurreratzen dagozala esan lei. "Gaur kaletik joan ezker ez da ia ezer desbardinik ikusten. Hori bai: denda batzuetara sartzeko ilarak dagoz, jenteak maskarak erabilten ditu eta eskuak garbitzeko produktua dagoz edonon. Baina terraza eta garagardaotegi guztiak zabalik dagoz eta jentez beteta, nahiz eta ume txikiak jantza eskolea oindino itxita egon barbarako".

Faseak hiru asteko iraupena Frantzian

Jon Ipiñazar Areatzakoa, Frantziako hego-mendebaldeko Haute-Garonne departamentuko Toulouse urian bizi da 2018tik. Kotxez, Arratiatik 4 orduko bidaia baino ez danez askotan etorten dala dino "gure parajeak ikusteko eta familiagaz egoteko". Simulazio eta analisi ingeniari lanetan egiten dau behar.

Toulouse Frantziako laugarren uri handiena da biztanleriari jagokonean, 480.000 lagun inguru bizi dira bertan. Kale giro bizia dauka eta arratiarrak gustuko dauka hango kaleetatik ibiltea eta "mahai bueltan garagardao bat edo beste dastatzea".

Konfinamentu sasoa, etxean

pasau dau, bertan lan egin, irakurri, eta besteak beste, baliabide telematikoak erabiliz, lagunakaz zeozer hartu edo-eta film eta serieak ikusten.

"Konfinamentuan egon arren, Frantzian kalera urteteko aukerea egon da: beti idatzizko testigantza bategaz, etxetik hur eta ordu beterrainoko denporan. Honek, nire ustez, konfinamentua erogarriagoa egin dau gorputzari astinaldi bat emonez espetxeko leihoen barrak lausotzeko" dino.

Faseak hiru aste irauten dabe. Konfinamentua, martian 17tik maiatzaren 10era arte izan zan. Deskonfinamentuko lehen fasea barriz, maiatzaren 11tik bagilaren 1era arte; bigarrena, bagilaren 21era arte izango da eta hirugarrena bagilaren 22tik aurrera.

Bigarren fase honetan, maskarearen derrigorrezkoa da garraio publikoan eta 100 kilometro baino gehiagoko distantziak egin dai-tekez. Dendak, uleapaindegia, tabernak, jatetxeak eta hotelak zabalik dagoz, baita haur-eskolak, eskolak eta hezkuntza zentroak.

"Lantokira bueltetako, enpresa batzuk maiatzaren 11n lokalen osasun azterketak egiten hasi arren, enpresen gehiengoan langileria bagilaren 2an hasi da apurka-apurka lantokitik lan egiten. Horretarako enpresa bakotzak, osasun azterketak egin ondoren, hainbat neurri ipini ditu martxan: esaterako lanpostu batzuen egokitzapena, langile ororentzat maskarak eskuratzea, langile txandak martxan jartzea, gel hidroalkoholikoa behar dan lekuetan banatzea eta ustezko material kutsatua biltzeako ontziak ezartzea" azaldu eutsan BEGITURI Ipiñazarrek bagilaren 7an. Frantziako Gobernuak enpresentzako laguntza ekonomiko na-

hikotxo be emongo dituala dino.

Maskarearen erabilera derrigorrezkoa da leku askotan eta bizilagun bakotzak postaz jaso dau maskara garbigarri bana udalak bialduta.

"Alsazia eta Pariseko departamentuetan eragin garrantzitsua izan dau birusak epidemiaren hasikeratik. Dana dala, denporea pasau ahala, ospitaleratzen eta heriotzen hazkundera moteltzen joan da. Beste departamentuetan, epidemiak eragin neurtua izan dauala esango neuke. Oro har, konfinamentua pasau eta gero eta bigarren fasean, badirudi gauzak lehengora bueltetako bidea" hartzean hasiak dirala dino Areatzakokoak.

Estadu bakotzak neurri desbardinak Mexikon

Lemoako Iñigo Iturrioz Linares eta Areatzako Leize Urriz Mexikon dagoz. Lemoakoa Pueblan eta Areatzakoa Guadalajaran. Iturriozek Lidergo Ekintzailea eta Barrikuntza gradua ikasi eban eta ikasketa horreek zabalduten eta ikasle talde baten *coach* moduan egiten dau behar hango unibersidade baten.

Puebla, Mexikoko erdikaldean dagoan Puebla estaduko uriburua da. 1,6 miloe biztanle ditu baina lemoaztarra "herri" izena emoten deusien Cholula auzoan bizi da. Lasaia eta atsegina dala, taberna eta jatetxe txikiak daukazala eta leku guztietara oinez joaten dala dino.

Konfinamentuan etxetik egin behar izan eban lan Iturriozek eta pisukidea Bilbora bueltau eta bakarrik geratuko zala jakin ebanean, Jalisco estaduko uriburua dan Guadalajara joan zan Areatzako Leizegaz eta bere pisukideakaz, pasetako itxialdia. Hile bi pasau ostean, Pueblara itzuli zan.

Orokorrean, gogor jo ditu



Iñigo Iturrioz Linares.

COVID-19ak, baina biztanle askok egoera ekonomiko larria bizi dabela eta Mexikon ez dabela derrigorrezko konfinamenturik ezarri dino Lemoakoak. "Kalean janaria saltzean daben postuak, jatetxeak, merkaduak... ez dabez konfinamentuan zarratu. Horregaitik ez da inoz derrigorrezko konfinamenturik egon. Behar diran nerriak hartuta beti urten ahal izan dot kalera, polizien edo multen bildur barik. Izan be, Guadalajaraatik Pueblara joan nintzan eta ez zan egon ezelango oztoporik estadu batetik bestera joateko".

Dana dala, estadu bakotzak neurri desbardinak ezartzeko poderea dauka eta Pueblak, berbarako, ezarritako neurri bat izan da, kotxean ibili ahal dirala egun jakin batzuetan, matrikulearen arabera. Hori eta hegaldi batzuk bertan behera geratzea izan dira arratiarrak Mexikon bizi izandako mobikortasunari egindako murrizketak.

Jente asko batzean dan lekuak zarratuta dagoz eta unibersidadean dana online egiten dabiz eta datorren ikasturteari begira ziurbakotasun handia dago.

Mexikon osasun baliabideetara heltzean ez dan jentea badagoala eta horreek birusa harrapatu ezker zelan moldatuko diran kezka agertu dau Iturriozek.

ZURE ZERBITZURA
Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua

AVIA

GURE BIHOTZA
Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

ATLETISMOA

Onditz Iturbe: "Galapan egitea nire bizi-estiloa da"

Bere esanetan irakaslea da bokazinoz eta profesinoz eta atleta afizinoz, baina atletismoan ibilbide luzea egin dau Onditz Iturbe Arginzoniz Igorrekoak. Gaur egun, krosa, mendi lasterketak eta maratoi erdiak konbinetan ditu. Bilbao Atletismoa Santutxu taldeko lasterketaria da.

COVID-19ak proiektu asko bertan behera geratu arren, Gorbeia Suzien mendi lasterketea ez da euretako bat eta horixe dauka helburutzat Iturbek.



Onditz Iturbe Gorbeia Suzien mendi lasterketan.

Erredakzioa

Sano gazte hasi ziran atletismoan eta hainbat txapel irabazi dozuz. Zeintzuk izan dira zuretzat lasterketa inportanteak eta zergaitik?

Oso gazterik hasi nintzan galapan, 6 urtegeaz. Baina nerabezarotan emon neban jauzi kualitatiboa: infantil nintzala, 14 urtegeaz, Euskadiko Txapelketan (Amurrio) hirugarren eginda. Orduan hasi nintzan aurrean ibiltzen eta Espainiako Txapelketetara sailkatuten. Baina, batez be, 2009tik aurrera etorri ziran lorpen garrantzitsuenak, lehenengo aldiz Euskadiko txapeldun geldituteagaz batera. Urte horretatik aurrera eskuratutako emaitzai esker, 2013-2014 denporaldian Santutxuk bere proiektuko partaide izateko aukera emon eustan. Gaur egun be eurekaz segiduten dot.

Lasterketa inportanteak baino, errazoi desbardinakaitik bereziak diran lasterketak daukadaz go-goan gordeta: Euskadiko lehenengo txapela Azpeitian, nire lehenengo maratoi erdia, igazko Gorbeia Suzien, itxialdia baino lehenagoko Nafarroako mendi lasterketea...

Mendi lasterketak be egiten dozuz. Oin horretan zabiz

gehiago ala atletismoa eta mendi lasterketak konbinetako ez dago arazorik?

Biak konbinetan dodaz. Lehenengo krosa egiten dot eta behin denporaldia amaituta, mendi lasterketetara pasetan naz, asfaltoan lasterketa batzuk be eginez.

COVID-19ak proiektu guztiak hankaz gora ipini dauz, lasterketa asko bertan behera gelditu diralako. Edozelan be, Gorbeia Suzienek aurrera darrai, hortaz, esperantza mantenduko dot eta jomuga bertan ipini.

Zein da zure egunerokotasuna? Itxialdian entrenamenturik egin dozu etxean?

Hasikeran esan dodan lez, atleta baino lehenago irakasle naz. Bost urte daroadaz Artxandako ikastetxe baten eta umeak dira nire lehenetasuna. Gainera aurten etapako koordinatzaile naz eta denpora aldetik justuago nabil.

Baina egia da galapan egitea nire bizi-estiloa dala eta ahal dodan neurrian denporea eskaintzen deusadala. Hori dala eta, lanetik urten eta ia arrastiro joaten naz galapan egiten. Gehienetan ez dodaz entrenamentutzat jotzen, deskonektatu eta pilak kargetako momentutzat erabilten dodaz eta.

Itxialdian inoz egin bako gim-

nasiak eta indar ariketak egiteko aprobetxatu dot. Material faltan, imajinazioa erabili behar izan dot.

Gaubetik egunera dana aldatu dau COVID-19ak: ikastetxera joatetik, online lan egitera; ia egunero galapan egitetik ezer ez egitera; lagunak urtetetik bideo-dei bitartez ikustera... Aldaketa handiak zentzu guztietan.

Paradojiko bada be, itxialdian ez dot denpora libre askorik euki. Lanak denpora asko hartu deusta, dana birprogramau behar izan dodalako. Tarte libreak "kirola" egiteko aprobetxatu dodaz eta lagunak bideodei bitartez egunak umorez janzteko. Pelikula edo

serierik ez dot ikusi, baina online kontzerturen bat edo beste disfrutatu dot.

Aurrera begira, zeintzuk dira zure planak, proiektuak eta ilusinoak?

Oingo astean ikasleakaz etorkizuna euki dogu berbabide eta irakasgai garrantzitsu bat erakutsi deuste: *Carpe diem*.

Egia da nire izakerea dala eta, dana ondo lotuta eukitea gustetan jatala, baina egoera honek argi itxi deusta badagozala faktore asko gure kontrolpetik kanpo. Hori dala eta, txipa aldatu eta gurago dot egunerokotasunean zentrau. Etorkizunak ekarriko dau ekarri beharrekoa.

Lehiatzeak ze garrantzia dauka zure bizitzan? Jente askok egiten dau galapan aisialdian, baina goi mailako talde baten konpetidutea sano desbardina da.

Konpetizinoak denporaldia bideratuteko lagungarri dira. Helburu argi bat euki ezker, norbere burua apur bat estututeko atakia eta motibazioa emoten dauz. Edozelan be, ni ez nabil goi-mailan konpetiduten. Nire taldean badago jentea honetaz bizi dana, ni barriz, ez. Hori dala eta, niretzat konpetizinoak bidaiatuteko, jentea ezetuteko edo neure burua neurtzeko aukeratzat hartzean dodaz.

Autokontsumo Fotovoltaikoa



AURREKONTUA ESKATU



Eguzki panelak jarri eta aurreztu

%50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik egindako proiektuak bisitatzeko aukera

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA

Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

 944 567 368

 www.ekoleds.com

 Bedia | Bizkaia

 info@ekoleds.com

ekoLEDs

INST. ELECTRICAS

 600 565 079

KIROLA

Martxan da barriro GBBR taldea Lemoan

Erredakzioa

COVID-19aren alarma egoereak ezarritako etenaldiaren ostean, Lemoako andrak alkarregaz galapan egiteko Gu Be Bai Runners taldea batzean hasi da barriro galapan egiteko. Bagilaren 3an hasi eta garagarriera arte luzatu dabe aurtengo ikasturte desbardin hau.

Partaideak eguaztenetan batzean dira 17:30ean eskolako atean, ordubeteko saioa egiteko. Saio bako-txean 9 erabiltzaile egongo dira eta partaideak Iraia Garcia entrenatzailearen arreta personalizaua izango dabe. Taldean sartzeako izen emotea zabalik dago.

GBBR ekimena 2015ean sortu zan, Lemoa eta Igorreko Udalak antolatuta, Iraia Garcia atletearen eskutik. Ordutik hona, hainbat andrak hartu dabe parte, sasoi-



egon ala ez, eta edade desbardineta-koak, Lemoan zein Igorren. Taldeetan sano giro ona egoten da eta bakotzak bere eritmoan egiten dau aurrera, beti be monitorearen laguntzeagaz. "Hasi nintzeanean, apenas minutu bat galapan egiteko gai nintzan eta aurreko ikasturteetan pare bat herri lasterketetan hartu dot parte" azaldu deutso BEGITURI erabiltzaileetako batek.

Iraia Garcia entrenatzaile

Iraia Garcia Etxebarriak 2018an itxi eban konpetizinoia amaiera bikainagaz: Master kategoriako 2.000 metro oztopoetan munduko bigarrena izanda, 24 urtetan atletismoa egin ostean. Krosean, Bizkaiko txapelduna izan zan 7 aldiz, senior kategorian sei aldiz (2012, 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017an) eta 2018an beteranoetan. Euskal Herriko kros luzeko txapel bi be jantzi ebazan eta laburreko bost.

FUTBOLA

LemoaHarrobi klubak zuzendaritza batzorde barria izango dau

Erredakzioa

Bagilaren 23ra arte aurkeztu daitekez hautagaitzak LemoaHarrobi Lemoako futbol klubeko zuzendaritza batzordeko partaide izateko. Izan be, klubaren estatutuak, zuzendaritza batzordeari lau urteko indarraldia ezartzen deutsie. Epea beteta, zuzendaritza barria osotuteko prozesuari ekin deutso klubak.



MENDIA

Antolakuntzeak Gorbeia Suzien egingo dan esperantzeagaz jarraituten dau lanean

Erredakzioa

Bagilean, Skyrunner World Series nazinoarteko zirkuituak jakinarazoz eban, COVID-19ak sortutako osasun krisia dala-eta, zirkuitua aurten bertan behera geratuko dala. Ha-ta guzti be, zirkuituko lasterketa batzuk jokatu dira, baina ez zirkuituko lasterketa moduan. Gorbeia Suzien mendi lasterketea be zirkuitu horretako lasterketea zan, baina antolakuntzeak lanean jarraituten dauala, datorren urri lehenengoaren 27an "lasterketea egin ahal izateko itxaropenagaz" emon dau jakitera ohar baten bidez. Beti be, osasun egoereak horretarako aukerea emoten badau.

Skyrunner World Series, nazinoarteko mendi lasterketa zirkuitua kudeatzen dauan taldeak, "tristura handiz" jakinarazoz eban aurten zirkuitua bertan behera geratuko dalako barria. "Nazi-

noarteko zirkuitua ez da egingo munduan zehar osasun krisi honen ondoriokaitik. Lasterketa batzuk egingo dira, baina ez nazinoarteko zirkuituaren parte moduan" adierazoz eban.

Gorbeia Suzienek ez dau etsi

Serieak kudeatzen dauan taldearen ebatzia errespetau eta ulertzen dau Gorbeia Suzieneko antolakuntza taldeak, baina lanean jarraituten dau, osasun egoereak aukerea emon ezker eta arriskurik ez badago, osasun agintarien gomendioak kontuan hartuta, aurrera erroteko lasterketea, "Gorbeiako Parke Naturelean, munduko korrikalari onenez gozatuteko".

Nobedadeen barri emongo dabela eta dana ondo badao, urri lehenengoaren 27an, Zeanurin lasterketea jokatuetea espero dabela adierazoz dabe antolakuntzako kideak.



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"

0-18 urtera arte

* Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasokoak.

* Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza.

* Matrikula urte osoan zabalik.



HISTORIA

Istripu ikaragarria Lemoan: 6 hildako eta hainbat zauritu (1920-VI-13)

Bagilaren 13an, San Antonio egunean Lemoan gertatu zan istripu ikaragarriaren 100. urtea bete da. Arrigorriaga eta Basauriko 42 erromesegaz Urkiolara joian autokamioi bat Zubiare zubitik, 11 metroko altueratik behera jausi zan Ibaizabal erreka. Istripua goizaldeko lau eta erdiak aldera gertatu zan. Albisteak oihartzun handia izan eban Bizkaiko zein Estatu mailako egunkarietan, eta lerroburuetan gehien erabili eben berbea "*catástrofe*" izan zan.

Jon Urutxurtu

Bidaiari eta suertatu ziran hildakoen kopuruari jagokonez, lehen uneetan zenbakien jantza egon zan: El Nervi6n egunkarian adierazten danez, goizeko lehen orduetan Bilbon zabaldu ziran zurrumurrueen arabera 45 bidaiari eroiazan autokamioiak eta 33 hil egin ziran; El Pueblo Vasco egunkarian Bilbon zabaldu ziran zurrumurruetan 43 bidaiari eta 38 zauritu aitatzen dira. Gero, gauzak argituz joan ziran eta egunkarietako lerroburuetan 42 edo 45 bidaiari eta 6 hildako aitatzen ziran.

Ezbeharraren errazoen artean honako honeek azaltzen dira egunkarietan: autokamioia abiadura handiegian sartu zala zubian; mekanikoaren eskarmentu faltea; errepidea ez eza-gutzea; zubian sartu baino lehen dagoan kurba arriskutsua zala eta gidariak maniobra desegokia egin ebala. Zalantzak agertzen dira, gidariaren prestakuntza eta gaitasunen inguruan be, bidaiari batzuk adierazo ebenez, bidean zehar maniobra arraroak egin ebazan.

Dirudiane, zubiaren aurretik egoan kurba benetan arriskutsua zan eta lehenetik Lemoako Udalak kurba hori zuzentzeko eskaerak eginak ebazan Foru Aldundian.

Arrigorriaga eta Basauriko hildakoak

Istripua gertatuko tokian bizi izan ziran eszenak dramatikoak izan ziran: autokamioia jausi zan lekuan Ibaizabal errekearen urak lau metro inguruko sakonera eukan eta bidaiari batzuk erreka bazterrean urteteko gai izan baziran be, 6 hil egin ziran eta hainbat zauritu egon ziran.

Biktimai emondako lehen laguntzea, zubiaren inguruko



Zubiare zuba. Ojangurenen argazkia. ABC egunkariaren artxiboa.



Bilboko portuko buzo batek Ibaizabal erreka arakatu eban Lemoan, hildakoen bila.

Ojangurenen argazkia. ABC egunkariaren artxiboa.

baserrietan bizi ziranen eskutik etorri zan. El Pueblo Vasco egunkariaren arabera bertaratu ziran lehenengo bi personak Francisco Artabe eta Angel Etxebarria izan ziran; Manuel Zarrabeitia Lemoako medikua laster azaldu zan ezbeharraren gertatu zan lekura zaurituak artatzeko; geroago, Arrandiaga Galdakaoko medikua be hurreratu zan bertara.

Sei hildakoak honako honeek izan ziran: Mariano Lozano eta Francisca Moreno, laster ezkontzekoa zan bikotea; Pilar Lasagabaster, Jose Azueta, Bernarda Ibarzabal eta Jose Larrea. Hurrengo egunean, astelehenean, Bilboko portuko buzo batek

erreka arakatu eban, baina beste hilik ez eban topatu. Egun batzuk geroago, zaurituak bat, Tomasa Larrazabal Basurtuko ospitalean hil zan.

Bagilaren 14an, astelehen goizean Zarrabeitia eta Arrandiaga Lemoako eta Galdakaoko medikuak 6 hildakoen autopsia egin eta itota hil zirala ziurtatu eben. Arrastian, zazpirak aldera 6 gorpuak Lemoako kanposantuko depositutik atera eta baktexaren herriera eroateko ekitaldia egin zan.

Zubiare harrizko zuba zan, gaur egun oindino bere arrastoak ikusi daitezke, baina bere lekua egurrezko oinezko zubi batek beteten dau, Lemoako gasolindegitik hur dagoan zubiak.

KONTAKETEA

Umeentzako ipuin kontaketea online

Erredakzioa

Bagilaren 19an, 17:00etan, Kontalari 2 taldeak, *Aho bete jolas* umeentzako saioa eskainiko dau Lemoako Udaleko *lemoakoudala.nirestream.com* plataforman.

Lurdes Gorostegik eta Idoia Barandiaranek osotuten dabe Kontalari 2 taldea. Urteetan ahoz transmitidu diran ipuin, jolas eta kantuak jasota daukiez eta edade desbardineta umeentzako saioak egiten ditue.

Aho bete jolas proiektua, Zizurkilgo (Gipuzkoa) herri eskolan sortu zan. Euskal kulturaren oinarri diran abesti, ipuin, olerki, igarkizun eta enparauak biltzean ditu.



LEHIAKETEA

Jose Miguel Arranzek irabazi dau Zeanuriko Aire Zabaleko II. Margolan Lehiaketea



Argazkia: Miren Idigoras.

Erredakzioa

Jose Miguel Arranzek *Alkiber* izeneko koadruak eroan eban sari nagusia eta publikoaren saria Eduardo Alsasuaren *Arregie* lanarentzat izan zan. Hamalau artistak Zeanuriko txokoak pintatu ebezan hamalau koadrutan.

Udalak antolatutako Aire Zabaleko lehiaketearen bigarren edizino honetan, nabarmen gehitu da partaidetzea nagusien kategorian,

9 partaidetatik 14ra, hain zuzen be. Umeak ez dabe parte hartu. Igaz 7 umek hartu eben parte.

Giroa "oso ona" izan zala, "egun itzela", Eider Ajuriagerra Zeanuriko alkatearen berbetan. Eguraldiak be lagundu eban eta musikea ez zan faltau izan. Izan be eguerdian, The Sorry String Band, bluegrass, blues, folk rock eta rock country taldeak zuzeneko musikeagaz animau eban plaza eta inguruak.

ZINEA

Limbo, Irune Gurtubaik ekoiztutako pelikulea Cannes 2020 hautaketan

Erredakzioa

Koronabirusak eragindako krisia dala-eta, Cannes Zinema Jaialdiak jakinarazo eban 2020an ez dala zinemaldirik egingo. Ha-ta guzti be, bagilaren 3an, jaialdiaren 73. edizioan Sail Ofizialean parte hartu behar ebenen 56 pelikulen aukeraketea emon eban jakitera. Filmok Cannes-eko Sail Ofizialaren zigilua eroango dabe eta horreen artean, Ben Sharrock zuzendari eskoziarra eta Irune Gurtubai ekoizle igorretarraren *Limbo* filma dago.

Sharrock eta Gurtubairen lehenengo pelikulea *Pikadero* izan zan, 2015ean Arratian grabau zana. *Limbo* barriz, Eskoziar ipar-mendebaldeko Uist irletan dago grabauta eta pasa dan udagoieneko errefujiaduen krisian girotuta. Asilo eskaera egin ostean, irla batera bialdutako errefujiaduak dira film honetako protagonistak.

"*Limbo* satira interkultural bat da, errefujiaduen esperantzea eta zailtasunak fintasunez josten dituana. Omar, Siriako musikari gazte bat da. Bere familiagandik urrun, Eskoziako irla txiki baten dago itxaroan, bere asilo eskaerearen erantzunaren zain. Besoko eskaiolak ez deutso bere *oud*-a jotzen ixten, eta irlako paraje izugarrietatik bueltaka pasetan dau denporea, iragan zail eta etorkizun ezezagun baten aurrean erantzunak bilatu guran" azaldu deutso BEGITURI Gurtubaik.

Aktore lanak, Amir El-Masry-k, Vikash Bhai-k, Ola Orebiyi-k, Kwabena Ansah-ek eta Side Babett Knudsen-ek egiten ditue.

Estreinaldia 2021ean

Cannes-eko zigiluagaz, *Limbo* beste jaialdi batzuetatik ibiltea be espero dau ekoizleak. "Estreinaldia zine aretoetan, seguruenik, 2021ean izango da".



MUSIKA ESKOLEA

Datorren ikasturterako gelak prestatzen hasi dira Arratiako Musika Eskolan

Erredakzioa

Arratiako Musika Eskolak "ilusinoz" hasi dau 2020-2021 ikasturteko prestaketea. Gelen egoerari erreparatu eta espazioak egokitzen dabiz, musika eskolak segurtasun neurriak bermatuta martxan ipinteko. Eskolak, martiaren 13an eten ziran eta urri lehenengoaren 14an hasiko dira berriratu modu presentzialean. Ikasle barrien matrikulazioa bagilaren 18tik 28ra bitartean izango da.

Oingo ikasturtea bagilaren 30ean amaituko dabe eta irakasle batzuk ikasturteari behar dan moduko amaiera emoteko kontzertuak antolatu ditue plataforma digitalen bitartez.

Itxialdian musikea etxean eta balkoietan

Martiatik hona, Arratiako Musika Eskoleak modu desbardinak erabili ditu bere ia 600 ikasleak hurreratzeko. Ikasleak, irakasleak legez, euren ezagutza teknologikoak eguneratu behar izan ditue ikasketa musikala eta instrumentala ez eteteko. Bideo-dei, audio grabaketa, tutorial eta plataforma digitalen bidez emon ditue eskolak. Helburu nagusia praktika musikalakaz eta ikasle eta irakasleen arteko hartu-emonak jarraitutea izan da. "Lan eta esfortzu handia izan da alde bien partetik, partitura barriak egin

eta berauek lantzean. Beste batzuek konfinamentu garaiko tar-teak bete eta disfrutetako erabili dabe materiala. Horren erakusgarri, gure webgunean dagozan ikasleen bideo sorta guztiak dira" azaldu deutse BEGITURI Arratiako Musika Eskolatik. Bideoak www.arratiakomusikaeskola.eu helbidean ikusi daitezke.

Hori gitxi balitz, balkoietatik be kontzertuak eskaini izan dira, auzoko eta herritarrakaz musikea partekatzeke. "Ikasle txikiakaz hartu-emonak desbardina izan da, ez dira online klaseak eskaini, saio honek taldean bizi behar diralako. Jantzan egin, abestu, musika tresnak jo... ordezkaezinak dira aurrez-aurreko saio honek. Horregaitik, familia giroan edo bakarka lantzeako proposamenak eskaini dira, baina bitarteko bardinak erabiliz".



EUSKEREA

Euskaraz Olgetan ekimena online ipini dabe martxan Zeberion



Erredakzioa

Eskolen eta euskera klaseen etenaldiak edo geldotzeak, Zeberion euskerearen erabilera gitxitzea ekarri daua Udalak. Horregaitik, "euskereari hegoak emon" eta ikasturtean ikasitakoa ez galtzeako, euskera ardatz izango daben jardura didaktikoak eskainiko ditu modu dibertigarrian adierazpena landuteko, eta herri ondarea transmitiduteko.

Holan, garagarrean eta abuztuan astean 30 minutuko saio bi eskainiko dira online, edadearen arabera antolatutako taldeetan. Izena bagilaren 26ra arte emon daitezke Udalaren webgunean, telefonoz, WhatsApeze edo udala.zeberio@bizkaia.org helbidera idatzita.

DUNBA

Olinpiadetako kirolen maketak Areatzako eskolan

Areatzako eskolako 6. maila

Areatzako eskolako 6. mailako ikasleak, olinpiadetak proiektua biribiltzeko, ikasle bakotzak egindako maketak eskolara ekarri ditue.

Martaren 12an koronabirusa dala eta, ikasketa prozesuari aurre egiteko ate barri bat zabaldu jakien ikasle guztiak. Hasikera baten zoramena eta ezinezkoa irudian etapa barri baten aurrean aurkitu ziran, baina asteak aurrera joan ahala, plataforma desbardinak eta teknologia barriak erabiliz aurre egin deutse egoera honeri. Proiektua martxan egoan, eta

LH3ko ikasleen proiektu amaierako helburua herri mailan olinpiada batzuk antolatzea izan zan. Bizi behar izan eben egoera barria dala eta, helburu hori bertan behera itxi behar izan eben.

Baina horrek guztiak ez eutsen lan egiteko gogoak kendu. Eta proiektua bera jarraituz azkenengo helburua aldatzea ebatzi eben. Ikasle bakotzak bere maketea sortzea, hain zuzen be.

Maketea sortzeako, lehenik eta behin ikasle bakotzak olinpiadetako kirol bat aukeratu eban. Kirol horren gaineko lan bat egin behar izan eban; arauak, zelaien neu-

riak, non jokatzeko kirolari famaduak eta abar azalduz. Ondoren eta lana biribiltzeko bakotzak aukeratutako kirola maketa baten interpretatu behar eban. Hone-tarako hainbat kontzeptu landu

ziran: eskalea, azalpen testuak, material birziklauak... Amaitzeko ikasle bakotzak maketea egiteko materiala bildu eban bere kabuz edo eskolara hurreratuta materiala jasoten.



Nahiz eta ikasleen asmoa maketa honek udaletzeko aterpean ixtea izan zan, herri guztiak ikusgai izateko, danon hobe beharrez eta biziten gabizen egoera honetan segurtasun neurriak hartu behar diranez, -adibidez, jente pilaketak saihestu- euren azkenengo ebatzia maketak eskolara eroatea izan zan. Maketa argazkiak ateratea eta eskolako blogean <http://areatzaherrieskola.blogspot.com/> gura dauanak ikusteko aukerea emotea.

AGENDA

BAGILAK 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikuetara Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

ARRATIA

2020-2021 ikasturterako Igorreko AEK-ko Kubulu Euskaltegiaren matrikula egiteko epea zabalik. Garagarrilaren 8a baino lehenago egin ezker deskontua eta beste bentaja batzuk. Telefonoa: 94 631 56 57.

Gernikako KZguneako 94 403 33 58 telefonora deituta, edozein zalantza argitu edo zozter kontsultatu daiteke.

Arratiako herrietako bake epaitegiak hartu-emonetan ipinteko, juzgadoareata@gmail.com-era idatzi edo 94 631 57 99 telefonora deitu.

BEDIA

10:30etik 13:30era, astelehenetik barikuetara Udal Liburutegia zabalik dago.

IGORRE

10:00etatik 14:00etara astelaren, martitzen, eguen eta barikuetan eta 16:00etatik 20:00etara eguaztenetan, Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, astelehenetik barikura, GBBR andrak galapan egiteko taldean izena emon daiteke 94 631 92 47 eta 688 627 393 telefonoetan.

10:00etan eta 18:00etan, astelehenetik barikura, Gimnasioa kalean, gimnasioa saioak monitorea kaz Udalak antolatuta. Izena 94 631 42 97 telefonoan emon 10:00etatik 14:00etara.

10:00etatik 14:00etara, martitzen eta eguaztenetan eta eguenetan 16:00etatik 20:00etara, Liburutegiko mailegu zerbitzua. Liburuak hartu eta itzuli liburutegiaren sarreran eguenetako ordutegian. Liburuak eskatzeko deitu 94 631 20 64 telefonora zerbitzu ordutegian edo bialdu mezu bat eskaereagaz liburutegia@lemoa.net helbidera. Katalogoa www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua webgunean ikusi daiteke.

Eguaztenetan, 09:00etatik 14:00etara, Udalak Oingabiz: ariketa fisikoa eta bizitza osasungarria sustatzeko programea eskaintzen jarraituten dau modu telematikoa. Hitzordua, WhatsApp bidez hartu behar da 678 064 892 zenbakian.

10:00etan, astelehenetik zapatara, tren geralekuan eta domeketan 09:00etan Arlonagusian, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekera.

ZEBERIO

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan

argazkiak bialdu daitezke udala.zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotuteko Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ez panoramikoak.

Hilaren 26ra arte, izena emon Euskaraz Olgetan online saioetarako. Udal webgunean, 94 648 10 79 telefonoan, 689 947 799 WhatsAppen edo udala.zeberio@bizkaia.org helbide elektronikoa.

BAGILAK 16
IGORRE

Hilaren 24ra arte, umeak izena emon daikie www.igorre.net webgunean, garagarrilaren 13tik 30era Udalak antolatutako ekintzetan parte hartzeako.

BAGILAK 17
LEMOA

09:00etan, ibilaldi gidatuak edadekoentzat. Eskoletan.

17:30ean, GBBR andrak galapan egiteko taldea eskolako atean.

BAGILAK 18
ARRATIA

Egun osoan zehar, Arratiako Berbalagunak antolatuta, II. Tortilla Txapelketa. Tortillea egin eta bialdu argazki, audio edo-eta bideoa 662 199 033 WhatsAppera. Kontau zelan prestatu dozun, ze osagai erabili dozuzan, ea laguntzarik izan dozun... Antolatuzaileak bideo bat egingo dabe partaideak bialdutaokaz. Saria: beste

tortilla bat egiteko arrautzak.



Hilaren 28ra arte, Arratiako Musika Eskolan ikasle barrien matrikulazioa online www.arratiakomusikaeskola.eu helbidean.

BAGILAK 19
LEMOA

17:00etan, Kontalari 2 taldearen eskutik, *Aho bete jolas* ipuin kontaketea lemoakoudala.nirestream.com plataforman.

BAGILAK 20
DIMA

07:00etan, Urkiolako errogatibara oinez joateko plazatik abiatu.

IGORRE

07:00etan, Urkiolako errogatibara oinez joateko San Antonio ermitatik

abiatu.

ZEANURI

07:30ean, Urkiolako errogatibara oinez joateko San Antonio txikerraren (plaza ondoan) ermita aurretik abiatu.

BAGILAK 23
UBIDE

San Juan jaiak. 17:00etan, arbolearen bila joan; 19:00etan, arbolea plazan altxau eta ondoren Orkresta elektrotuna; 21:00etan, azuri txuletatxoak; 23:00etan, sua.

BAGILAK 24
LEMOA

09:00etan, ibilaldi gidatuak edadekoentzat. Eskoletan.

17:30ean, GBBR andrak galapan egiteko taldea eskolako atean.

UBIDE

San Juan jaiak. 12:00etan, Altxorraren bila jolasa umeentzat; 13:00etan, herri kopaua; 18:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen jantza ikuskizuna eta ondoren azken traka.

BAGILAK 29
DIMA

Garagarrilaren 3ra arte, Gazte Abentura 2002 eta 2007 bitartean jaiotakoentzat.

LEMOA

10:30etik 13:00etara, Ludotekeak antolatuta, Jolaslekuak 2020, 2008 eta 2015 urteen bitartean jaiotako umeentzat.



Karmengo Ama Ikastetxea, osasun-krisiaren aurrean: Hezkuntza, familia eta norberaren erronkaren aukerak

Pandemiaren ondorioz etorri jakun isolamenduak ekarri dauan erronka hezitzaile eta pertsonala gu guztiontzako **aukera bilakatu da**. Ikasgelak itxi ziranetik ia hiru hilabete pasatu diranean, Karmengo Ama Ikastetxeak hausnarketa sakona egin dau honen inguruan eta **erronka honen alde positiboa** ikusi dau. Isolamenduak ekarri deuskuzan indarguneak agerian dagoz.

Ikastetxeko Hezkuntza Alkartearen **sarea inoiz baino indartsuagoa dala** eta **inoiz baino batuago** dagoala erakutsi dau. Ikastetxeak, familiek eta ikasleek aspalditik landutako sareak dira orain sendotasuna erakusten dabenak.

Alkarrizketa, oso agila izan da. Familiak egindako foro birtualek (Meet, posta elektronikoa) edo Eskola Kontseiluaren bilera telematikoek aukera eman deuskue, informazioa, beharrak eta kezak partekatze eta ondorioz, **online hezkuntza** baldintzarik onenetan **aurrera egiteko**. Sare guzti horreei esker, ikastetxeak eskola-ordutegiak egokitu ditu, zereginak egokitu ditu, eta urtenbideak ere bilatu dauz hezkuntza-etapa bakoitzerako eta baita familia eta ikasleen beharrezan egoera zehatz bakoitzerako.

Alkarrizketaren bidez sortutako "termometro" sozial horri esker, irakasleek eta ikastetxeko zuzendaritzak abantaila handiagaz aztertuko dauz ziurgabetasun handiagaz jatorrun hurrengo ikasturteko erronkak. Errealitate desberdinak aztertuta, hezkuntza-proiektu osoa eraikitze asmoz, beste gauza batzuen artean, argi geratu jaku gaitasun digitala, gailuak eta plataformak erabilitea- **zeharkako premia** bat bat dala, eta **ikasle eta familien artean gaitasuna hau indartu behar dala**.

Hala ere, Karmengo Ama Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, pertsonen formakuntza ardatza da eta **ezin doguz baztertu alkarrizketa, hezkuntza emozionala eta giza-harremanak**. Osasun krisiak ekarri **deuskun gizarte-urruntzea**, beste erronka bat izan da. Karmengo Ama Ikastetxeko irakasleek **metodologia kooperatiboak** online **moduan sendotasunez bideratzeko erak aztertzen murgilduta dagoz**.


Lan kooperatiboak ikasleen etorkizunerako erabilgarritasun handia dauka, hezkuntzaren oinarriko planteamenduetako bat da eta aspaldi onartu eta partekatzen da ikastetxean. Orain **online pres-takuntzan isladatu behar dogu**, gardentasunez, asertibitatez eta enpatiaz. Izan ere, online esperientziak hori ere posible dala erakutsi deusku. Ikaskideak sozializatzen eta harremanetan jartzen bai era birtualean, ikasgelan, jolastokian zein kalean Karmengo Ama Ikastetxearen ardatzetako bat bideratzen dogu. "Pertsonak hezten doguz".

Harremanak modu onlinean gauzatzen dabizen aste honeetan, alkarrizketa, alkarlaguntza eta parte hartze gogo hori ere agerian geratu da ikasle, irakasle eta familien aldetik. Bestearen lekuan jarri eta banakako eta taldeko egoera desberdinak hobetzeko **ideiak, tresnak edo materialak partekatu doguz**. Sarearen ondorioz guztion ongizatea bermatu dau.

Guztiok ikasi dogu isolamendu egoera honetatik. **Irakasleak hainbat arlo eta modutan trebatu dira** neska-mutilak euren hezkuntza-prozesuan ahalik eta onena berenganatzeko. Kudeaketa emozionala, metodologia berritzaileak, ikasleentzako tresna eta aplikazio teknologikoak, elikadura osasuntsua edo osasunerako prestakuntza dira landu diren ikasgaietako batzuk.

Deskribatu dogun guzti hau, ikasgelak itxi zirenetik izandako **etengabeko hobekuntzarako grinari** esker egin ahal izan da, eta, batez ere, **hezkuntza-komunitate osoaren ahalegin ordainezinarri** esker. Karmengo Amak eskerrak eman nahi deusaz familiei eta irakasle guztiei egindako lan handiagatik, hori barik ezinezkoa izango litzakean osasun-krisiaren hezkuntza-erronka handi honeri aurre egitea.

Animo! **Etengabeko ikaskuntza komunitarioan bizi gara.**



94 673 09 35
cmek@karmengoama.eus
www.karmengoama.eus



KOMIKIA

Kailo Ren

Gatazka konponketa. Lehen saioa: Sarrera:

- 1-- Solaskideak dioena enpatiaz aditu
- 2-- Onartu ezazu arrazoia ez duzunean
- 3-- Bestearen alde onak aipatu
- 4-- Utzi sentimenduak alde batera
- 5-- Bidezko konponbide bat proposatu

Politikari errentagarriaren ikastaroa

- 1- Solaskideak dioena ukatu
- 2- Zuk daukazu beti arrazoia
- 3- Bestearen alde txarrak bakarrik aipatu
- 4- Gorrotoa eta beldurra erabili
- 5- Zure lagun boteretsuentzat onuragarri diren konponbideak proposatu

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz.

Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiltz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkerro, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online

zein modu prezentzian, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Anima! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emailean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Udalak emondako **Fasioren mendea** CD-liburu bana.

Izaskun Atutxa (Igorre)
Odei Bustinza (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza 649 869 536

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) • Tfnoa: 94 673 64 75

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anaitia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Baxarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA
filippini
GENERATING SETS

filippini **Nilfisk** **JCB** **MANITOU** **CTX CONTAINEX** **TeknoDiktika** **HIKOKI** **POWER PRODUCT ENERGY** **MASTER** **INSTANT UPRIGHT**

ARRATIA/GORBEIALDEAN BIZI ZARA?
IRLANDAK ERAKARTZEN ZAITU?

HALAXE BADA,
GURE PROIEKTUAN SAR ZAITEZKE

Quiet Corner
PROFESSIONAL IRISH EXPERIENCE

Pertsona bi (2) behar dira asteburuetan
lan egiteko (eguna, barikua, zapatua,
domeka. Adosteko).

✦ Bidali CVa: tcqcorner@gmail.com
✦ Informazioa: 608 776 603

www.thequietcorner.eu
AREATZA

EKIN
CONSTRUCCIONES

30
urte
beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

☎ 94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
✉ eraketak@construccioneseekin.com

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

MATRIKULA
Epea: ekainaren 18tik 28ra
- ONLINE: www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**
- Web orrian
- Astelehenetik ostiralera
10:00etatik - 13:00 arte
Telefonoa: 94 631 73 52

- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu
arratia.musikaeskola@gmail.com